

noaua



Orokorru izan zen greba Usurbilen

Janaria biltzeko kanpaina antolatu dute motozaleek

Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak

**Udarregi Ikastolaren omenaldia
jaso zuen Imanol Urbietak**


ORDUTEGI
BERRIA!!!!

LARUNBAT
ARRATSALEDAN
IREKIA!!!

Marije

Arropa denda

Etxebeste 3 - 943 36 11 06 - USURBIL



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

ASEGURURIK BADUZUE?

DEITU GURE BULEGORA ZUZENEAN (24H)
IZAPIDEAK AZKARTUKO DITUGU
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta
ERRAUSKETA-LABEEKIN

ASEGURURIK EZ DUZUE?

AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
FAMILI BAKOITZERA EGOKITUTAKO ZERBITZUAK
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN
USURBILGO BEILATOKIA DOAN
FINANTZAKETA INTERESIK GABE
OINARRIZKO ZERBITZUAK OSO MERKEAK

Tel: 943.36.21.63

BALTSAMAZIO, KONTSERBAZIO ETA BEREIRAKETAN
ADITUAK, PARTIKULARRENTZAT ETA EHOZKETA
ENPRESENTZAT LAN EGITEN DUGU EUSKAL HERRIAN

info@funerariagonzalez.es munalurra 8, Usurbil

[http://www.](http://www.noaua.com)

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala
orain ere noaua.com web orrian



Etxebizitzak, garajeak, motorra,
lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo
eta kontsulta dezakezu

www.noaua.com



MERKATU TXIKIA



noaua

usurbildarren zerbitzura



Albiste iruditan

Diploma banaketa Lasarte-Usurbil Institutuan

Berezia izan zen aurreko ostirala Lasarte-Usurbilgo Institutuan. Batxilerra amaitu duten ikasleen artean diploma banaketa egin zen eta zuzendariaren hasierako hitzen ondoren, Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak hartu zuen parte. Gazteentzat baliagarriak izan daitezkeen hainbat sentimendu, hausnarketa eta iradokizun azaldu zituen hitzez eta bertsoz.

Ondoren diploma banaketari eman ziztaion hasiera eta, segidan, batz best 9tik gora atarra duten ikasleen sari banaketa egin zen. Zortzi ikasle izan dira nota hori lortu dutenak: ohorezko matrikulako hiru eta aipamen bereziko bost. Honako hauek izan dira:

Ohorezko Matrikula: Ander Bardaji Maiza, Josu Olmos Amondarain, Maider Zuriarrain Alonso.

Aipamen Berezia: Intza Alkain Ibarguren, Nagore Elola Gaztañaga, Saioa Perez Carte, Nicolas-Alejandro Tolosa Gonzalez, Mariz Valiente Merino.



Uxue Alberdi bertsolariak hartu zuen parte diploma banaketan.

Laburrean

Arantxa Zulaika irabazle, jaietako diseinu lehiaketan

Epaimahaiaren ustez, Arantxa Zulaikak aurkeztu duen proiektua izan da ederrena aurtan. Bereizgarritasunik izango du Santixabeletako jai egitarauak: ez du argazkirik izango, ilustrazio modukoak baizik. Lasarte-Oriako da Arantxa Zulaika gaztea eta NOAUA'n aritu izan da diseinatzaile eta maketatzaile lanetan.

Antzerki Txiki Taldekoen azken emanaldia

Antzerkigintzan diharduen herriko gaztetxo taldeak, emanaldiak eskainiko ditu egunotan. Lehen saioa astearterako programatu zuten. Bigarrena ostegun honetan, ekainak 6, arratsaldeko 17:00etan eskainiko dute Sutegiko auditorioan. Saioa gerturatzeko gonbita luzatzen dute antolatzaileek.

Liburu bilketa kanpaina berria martxan

Udarregi Ikastolak abiarazi du kanpaina. "DBH 2, DBH 3 eta DBH4ko liburuak behar ditugu eta ikastolan uztera animatzen zaituztegu". Liburuak uzteko asmotan direnek, ikasturte amaierara arte, hau da, ekainaren 21era arte gelan utzi ditzakete ikasleek edota bestela, Udarregi Ikastolara eraman eta kito.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaua.com.

Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzio@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa
Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainar

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herra!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Jakinduriaren transmisioaz

Krisiak dena kutsatu aurretik, gutxi hitz egiten zen ekonomiaz. Edo hala iruditzen zitzaigun behintzat. Baina 2008 urtetik hona, dezente aldatu dira gauzak. Hizpide nagusietakoa da. Aduitu ugari agertu dira hedabideetan, baina azalpen argigarri gutxi jaso ditugu. Eta horrela doaz asteak, hilabeteak, urteak... Eta ez dirudi gauzak epe laburrean aldatuko direnik. Eta okerrago dena, azalpen argirik topatzeko itxaropena ere galtzen hasia dugu.

Oharkabean, Luzuriagari buruzko liburuan topatu dut argi izpirik: "Luzuriaga, voz y vida obrera, hogoita bost lekukotasun" (Sorginarri, 2013), Koldo Izagirrek idatzia.

Luzuriagako 25 langile ohi elkarriketatu ditu Izagirrek, euren lekukotasunak jasotzeko. Ez dakienarentzat, Luzuriaga Usurbildik haratago doan (edo datorren) enpresa da. 1994an, Victorio Luzuriaga-Fagorrek hiru lantegi zituen: Pasaian, Tafallan eta Usurbilen. Duela 20 urte ere, krisi giroa bizi zuten Euskal Herriko industriak. Eta Luzuriagari ere eragin zion orduko krisiak. Hiru lantegietako langileei bidez-

ragarritasun plan bat aurkeztu zien zuzendaritzak (eta langileek bozketa bidez onartu). Plan honen ondorioz, Pasaian Antxoko lantegia itxi eta 540 langile kaleratu zituzten. Gainontzekoek, Usurbil eta Tafallako lantegietan jarraitu zuten lanean.

Liburuan, esan bezala, 25 langile elkarriketatu ditu Koldo Izagirre idazleak. Elkarrizketa bakoitzak dakar gogoa hartzeko moduko esaldiren bat, zer pentsatua emango dizun daturen bat... Lander Ziganda langilearen hitz batzuk, esate baterako, orri honetan jasotzeko modukoak direla uste dut. "Globalizazioa aipatzen da, enpresa mailan zer esanik ez MCC hor dabil Txinan eta Indian... Izan al duzue horren eragirik?", galdetu du Koldo Izagirrek.

"Nola ez! Kontatuko dizut bat polita", erantzun dio Lander Ziganda Etxekolonea langileak. "Alemanian bada enpresa bat, Continental Teves izenekoa, ekipamenduak egiten dituen automoziorako, arunt inportantea da enpresa hori, gaitzeko bolumena dauka. Guk pieza batzuk egiten genituen lehen Continental Teves horretarako. Baina halako batean guri lana

kendu eta Egipton hasi ziren piezak egiten. Horra globalizazioa: Alemaniatik hona lehenbizi, gero Egiptora. Globalizazioa, lan munduan, lana lekutzea da. Baina Egipton matxinada gogor bat sortu da duela gutxi, eta gertatu zaie produkzioa behehitu egin dela izugarri, enpresak erdi itxia daudelako, jendea kalera ateratzen denez erregimena botatzeko. Nork egin behar dizkie piezak orain? Luzuriagak! Guregana berriz pieza horiek egiteko. Eta zer gertatzen da Luzuriagan? Ba arazoak dauzkagula kalitate aldetik, pieza on bat aterako badugu lau eta bortz pieza egin behar izaten ditugu, ez dakigulako ongi egiten. I gehi G erraiten zaion hori, lkerketa gehi Garapena, gezur galanta".

Erantzunarekin harrিতuta, galdera zuzena botako dio Izagirrek Luzuriagako langileari: "Baina nola liteke urte batzuen buruan horrelako galera gertatzea kalitatean?"

"Nola litekeen?", erantzun dio Luzuriagako langileak. "Lehen jakinduria bat zegoen, urteetan eta urteetan ikasitako ofizioa zen burdingintza, eta ofizio hori transmititu egiten zen, zaharrek erakusten zieten gazteei. Eta

gazte horiek berdin egiten zuten gero, urteetan trebatutako langileak bihurtu ziren, aunitz ikusi eta ikasitakoak, eta huraxe pasatu zieten etorri berriei. Baina eten egin da jakindura horren transmisioa, erretiratu egin zaigulako Pasaian Luzuriagatik Usurbilera joandako fundatzaileen azken belaunaldia: Campos, Crespo, Aznar, Elizalde... (...). Orain gutxi jubilatu da Pascual Agirre, fundizioan aunitz zekien azken gizona zela erranen nuke nik, ehun urteko esperientzia jasoa zeukan langilea, nolabait. Eta teknikari on haiek gabe, ingeniarien mende ibili behar dugu, eta ez daukate ideiarik. Pascual Agirre bat joan dela? Hobe, soldata bat gutxiago. Horien orde, gazteak kontratatu miserian eta aitzina. Ez da kalkulu enpresariala egiten, kalkulu kontablea egiten da. Eta horri benefizioa erraiten diote. Lana gaizki eginda, benefizioa..."

Jakinduriaren transmisioaz hitz egiten entzun al duzue norbait azkenaldian? Horretan begipuntua ipini duen politikorik? Hedabideen pasarelan gutxiago agertu eta esperientziaren ahotsetan erreparatuko duten agintariak behar ditugu.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

Ika-Mika

Eman hartu nahi duzun mundua

Maiatzaren 4an Orendainen, Gipuzkoako lehenengo zero zabor herrian, hasi zen Gipuzkoa Zero Zabor eta herrietako Zero Zabor taldeek elkarlanean antolatutako Mundubekimena. Ekimenaren bidez, hondakinen kudeaketan ere oinarri izan behar lukeen printzipioa aldarrikatzen ari gara. Guztiok daukagu mundua aurreko belaunaldiek jaso zuten aukera berdinekin jasotzeko eskubidea, eta ondorioz, guztiok daukagu hurrengo belaunaldiei mundua jaso dugun aukera berdinekin uzteko betebeharra. "Eman hartu nahi duzun

mundua" leloan laburtu dugu ideia. Herriz herri eskuetatik eskutara dabilen mundubolak irudikatzen du mezua.

Herriz herri lau astetako ibilbidea egin du dagoeneko, aldarrikatzen dugun etorkizun baikor eta itxaropentsu hori giro alaietan irudikatuz. Ekimen honen bidez, gipuzkoarrak batzen gaituzten ideiak indartu nahi izan ditugu, liskarrak eta zatiketak alde batera utziz, hondakinen kudeaketa ezegokiaren arazoari irtenbide eraginkorra elkarrekin eraikitzeko dei eginez.

Larunbat arratsaldean, 6etan

Donostiako bulebarrean burutuko da herrialde mailakoa izango den azken ekitaldia. Ekitaldi arin eta entretenigarria egingo dugu. Guztiok izango dugu lekua bertan, dantzatuko ez dutenak eta dantzatuko dutenak. Oraindik koreografia jakin ez eta ikasitako nahi duenarentzat entseguak izango dira ekitaldia hasi aurretik.

Animatu guztiok eta azaldu Donostiako zitara. Guztion artean mundu hobeago bat daukagu eraikitzeke.

Gipuzkoa Zero Zabor

Aginagako udako txokoetan izena emateko epea zabalik da

San Praixku guraso elkarteak antolatutako txokoa uztailearen 1etik 30era luzatuko da. Izen ematea hilabete osorako edo hilabete erdirako egin daiteke.

Hori bai, ekainaren 14ra arte dago izena emateko epea. Horretarako, 637 332 402 telefono zenbakira deitu behar da. Aginagako eskolako ikasleentzat prezioa hau izango da: 55 euro hilabete osoa, 30 euro hilabete erdia.

Aginagako eskolako ikasle ez direnentzat: 90 euro hilabete osoa, 55 euro hilabete erdia.

Orokorra izan zen greba Usurbilen

Eskubide sozial eta laboral duinen alde, Hego Euskal Herriko gehiengo sindikalak eta hamarnaka eragilek maiatzaren 30erako deituriko greba orokorrak jarraipen ia erabatekoa izan zuen Usurbilen. Goizean goizetik nabaria zen, deialdiak izandako harre- ra. Kaxkoan osteratxoa egin besterik ez zego- en, grebak zer nolako eragina izan zuen ikus- teko. Panorama, ohiko greba egunetakoa. Sal- toki eta taberne pertsiak jaitsita zituzten. Eguraldi kaxkarra izanda gainera, kalean ape- nas zebilen inor.

Greba eguneko lehen orduak emandakoan berri eman zuten, 9:30ak aldera frontoian burutu zen eguneko lehen batzarrean. Indus- tria guneean grebarekin bat egindako lantegi- ak nagusi zirela zioten. Zenbait lantegi ata- rietan auto batzuk aparkatuta ikusten ziren, baina aipaturikoa, greba orokorrak jarraipen zabala izan zuen herrian ditugun lantegietan. Salbuespen bakarretakoak, Michelin edota Urbil merkatalgunea. Egunean zehar, hainbat pikete informatibo egin ziren batean zein bes- tean, greba orokorrenekin bat egitea eskatze- ko. Urbilen kasuan, Buruntzaldeko udalerrie- tako ehunetik gora herritarrek parte hartu zuten merkatalguneko pikete informatiboan. Ertzain-



Greba egunean, arratsalde partean manifestazioa egin zen Usurbilen.

tzaren presentzia nabaria izan zen une oro.

Eguerdian hiriburuan, arratsaldean herrian Mobilizazio eguna ere bazen maiatzaren 30ekoa. Hasteko, eguerdian Hego Euskal Herriko hiri- buruetan manifestazio bana deitu zuten sin- dikatu eta eragileek. Donostian burururikoak, Antigu, Gros eta usurbildarrak tartean zituen Anoetako zutabeetatik abiatutako herritarrak batu zituen. Hiriburu erdigunetik eginiko mani-

festazioa, Bulebarrean amaitu zen, sindikatu- tako ordezkarien adierazpenekin.

Arratsaldean udalerrien txanda heldu zen. Herrietan deituriko mobilizazioek hartu zuten lekukoa. Eguraldi kaxkarrari aurre eginez, mani- festazio jendetsua burutu zen, "Euskal Herriak eredu propioa. Eskubide sozial eta laboral duinak" lemapean. Kaxkoko kaleak zeharkatu oste- an, abiapuntuan, pilotalekuan amaitu zen mobilizazioa.

Ika-Mika

Zorionak Usurbil, denok batera lortuko dugu!

Pasa den maiatzaren 30eko greba orokorrak Usurbilen izan duen isla eredugarria izan da, ia lantegi eta komertzio guztiak itxiak izan baitzi- ren. Krisia pairatzen ari garen langile, langabetu, etorkin, ikasle, etxe-kale- ratu, etxeko langile, gizon eta emaku- meok gizonak berdintzen gaituen borroka tresna izan da greba oroko- rra, guztiok elkarrekin, etsai komuna densistema kapitalistari aurre egin bai- tiogu, eta seguru gaude, aurrerantze- an ere aurre egiten jarraituko diogu- la. Edozeren aurretik beraz, zoriondu grebaren antolakuntzan arituriko era- gile sindikal eta sozialak, eta bereziki, greba orokorrean parte hartu duzuen herritarrak. Biba zuek!

Herritarrok hartutako konpromiso- an erakuslea izan da greba egune- an Usurbilen atera zitekeen argazkia,

izan ere, saltokiren bat salbuespen, taberna eta saltoki guztiak pertsiak jaitsi baitzituzten eskubide sozial eta laboral duinen aldeko borrokari elkar- tasuna adierazi eta konpromisoa har- tuz. Gauza berbera esan dezakegu herriko lantegietako langileei dagokio- nean, lantegietan ere jarraipen zaba- la izan baitzuen greba orokorrak. Hala ere, zoritxarrez, bi salbuespen nagusi izan ziren, Urbil merkatalguneak (Ertzaintzaren armek babesturik) eta Michelin lantegiak beste behin ere herritar oren eskubideen defentsari bizkar eman baitzien. Bi eredu arte- ko talka azalatu da berriz ere. Alde batetik, herritar guztion interesen alde lerrotzekin diren langile, herriko tabe- rna eta saltoki txikiak eskatzen dugun eredia, justizia sozialean eta elkar- tasunean oinarrituko dena. Bestetik,

beraien etekinak herritarren eskubide sozial eta laboralaren etengabeko urra- ketan oinarritzen dituzten Urbil eta Michelin bezalako multinazionalak eli- katzen duten eredu kapitalista. Honen aurrean, zoriondu, zailtasunak zailta- sun, azken eredu hau salatu eta, elkar- tasunaren eta konpromisoaren isla izan zireten herriko langile, taberna eta saltoki txikiak.

Greba eguna atzean utzi dugu, bai- na ez gara aspertuko greba egunean esandakoa errepikatzeaz: mobiliza- zioak eta borrokak etengabea izan behar du, hain zuzen ere, eredu sozial justu bateraikitzea ahalbidetuko duen burujabetza politiko eta ekonomikoa eskuratu artekoa. Bide honetan, gre- ba orokor egunean langile eta herri- tarrok eraiki dugun olatua profitatuz, hurrengo urratsa Euskal Herriko Esku-

bide Sozialen Gutuna osatzea izango da. Aldarrikatetik harago joango den tresna izatea nahi dugu, euskal gizar- te osoaren indarrak eta garatzen ari garen borrokak batzeko lehen pausoa, helburu argi batzuen inguruan bidea osatzen lagunduko dutenak. Ziur gau- de bide honek Euskal Herriarentzako, eta beraz, Usurbilentzako eredu pro- pio batera eramango gaituela, esku- bide sozial eta laboralaren errespetuan eta justizia sozialean oinarritua, eko- nomiaren erdigunean eta merkatuaren lekuan bizitza bera jarritz. Horre- gatik, elkarlanerako eta konpromiso- rako deia luzatu nahi dizuegu herri- tarrei zein aldaketa soziala exijitzen duten eragile guztiei. Denok batera lor- tuko dugu!

Usurbilgo Greba Batzordea

Onkologikoa, Osakidetzan sartzearen alde

Onkologikoa etorki-zunera begira "kolokan" dagoenez eta "jendarte guztiaren esku dagoen zerbitzua ziurtatzeko", Osakidetzan sartzeari eskatzeko mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk, azken osoko bilkuran. Joxe Ramon Furundarena zinegotziak irakurri zuen testuak "Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio has dadila Kutxako Zuzendaritzarekin eta Gizarte Ekintzarekin eskakizun hau errealitate bilakatzeko beharrezkoa den plangintza adosten. Plangintza horretan eman beharreko urratsak, epeak eta bi erakundeen kulturak uztartzeko ibilbidea jaso beharko dira".

LANGILEEI AITORTZA

Horrez gain, "urte luzetan egin duten lanagatik", bertako langileen aitortza egitea eskatzen du mozioak. Eta "adostutako zuzendaritza baten baitan garatuko den trantsiziozko epealdi honetan berma dezatela Onkologikoak biziraupenerako behar duen diru-hornidura".

PSE-EEko Ricardo Crespo bozeramaileak mozioaren alde bozkatuko zuela iragarri zuen. Gogorazi zuenez, Eusko Legebiltzarrean EH Bilduk aurkeztutako testuaren aurrean, PSE-EEK emendakinak aurkeztu zituen. Aurreko asteko osoko bilkuran aurkezturikoak emendakinok biltzen zituela zioen, eta beraz, mozioa ba-



Adineko zentroetako langileen hitzarmenaz ere eztabaidatu zen planoan.

bestuko zuela.

Bozketan EAJ-PNV abstenitu zen, gainerako udal taldeek bat egin zuten EH Bilduk aurkezturiko mozioarekin.

ADINEKO EGOITZETAKO LANGILEEN HITZARMENA

ADEGI eta LARESi negoziatzioa desblokeatu, sindikatuekin akordio batera heldu, ADEGIk Foru Aldundiaren aurka aurkezturiko salaketa kendu eta herritarrei "kalitateko zerbitzu publiko baten alde, eta sektore honetako herrialdeko hitzarmenaren alde" hurrengo asteetako mobilizazioetan parte hartzera deitzen du, iragan astean burutu zen osoko ohiko bilkuran, gehiengo osoz udalbatzak onartu zuen mozioak. Testua, adinekoen egoitzetako eta Eguneko Zentroetako langileen lan hi-

tzarmenari loturikoa da.

Lan hitzarmen honen negoziatzioa egun, blokeatuta dago. Foru Aldundiak egoera bideratzeko proposamen bat egin du. "Proposamen honek sektore honetako langileen aldarrikapen historikoak diren lan baldintzen hobekuntzarako neurriak jasotzen ditu bere baitan, baita inposatutako Lan Erreforma Laboralaren ondorio negatiboak eragozteko eta zerbitzuaren kalitatea hobetuko luketen neurriak ere; eta honekin batera, patronalei proposamen hau aurrera eramanez ahal izateko beharrezko diru hornidura bermatzen die", dio mozioak. LAB sindikatuak aurkeztutako testua, Bildu eta Aralarren aldeko bozkekin onartu zen. PSE-EE abstenitu zen. EAJ-PNV eta Hamaikabatek mozioaren aurka bozkatu zuten.

Frankismoko krimenen aurkako kereila babestu du udalbatzak

Frankismo garaiko krimenen aurka Buenos Airesen (Argentina) aztertzen ari diren kereilarekiko atxikimendua agertu zuen Usurbilgo Udalak, aho batez, aurreko astean burutu zen osoko ohiko bilkuran. Udalak atxikimendua eta laguntza adierazi dio modu honetan, hainbat elkarteek osaturiko Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak aurkezturiko mozioari eta bertan egiten diren eskakizunei.

Besteak beste, Francoren altxamendua eta ondorengo diktadura, baita ekintza hauetan parte hartu edota honen guztiaren alde egin zutenak salatzen ditu maiatzaren 28an onarturiko testuak, "berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuengatik". Aldiz, 1936ko uztaileko altxamenduan eta erregimen frankistan errepresaliatuak izan zirenen eskubideen alde agertzen da mozioa eta administrazioei eskubideok bermatzea eskatzen die, egia, justizia eta erreparazioa galdegiteaz gain. Horrekin guztiarekin batera, udaletxeak soilik ez, errepresioa sufritu dutenei, euren senideei eta herritarrei ere, testu hau babesteko deia egiten zaie.



Mozio hau beste udalerrri askotan ere aurkeztu da.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Janaria biltzeko kanpaina antolatu dute motozaleek

Gipuzkoako Motozaleen Elkartekoek gosearen aurkako janari biltzeta kanpaina antolatu dute, beharra dutenen alde. Janaria biltzeko kaxak jarri dituzte udalean eta Oiardo Kiroldegian, ekainaren 14ra arte. Bertan galkorrak ez diren elikagaiak utzi daitezke. Modu honetan, behar dutenei elkartasuna adierazi nahi diete ekimen honen bidez. "Hau ez da bereziki norbaitengatik egiten, lagun, familia nahiz ezezagunengatik baizik, batez ere garbi ikus dadin, egunetik egunera jende gehiago batzen duen borroka honetan, batera gaudela", diote motozaleek.

Elkartasun ekimen honetan parte hartzera deitzen dute motozaleek. "Zuen guztion laguntza eskatzen dugu ideia hau aurrera eraman ahal izateko, ez baitugu diru edo ospa bila egiten, denok hain beha-



Kiroldegiaren sarreran dago janaria uzteko kutxa.

rezkoa dugun janaria ez daukaten haur, heldu nahiz adinduengatik baizik", berri eman dute.

Horregatik, erosketak egiterakoan deialdi hau aintzako-tzat hartzeko gonbita luzatzen diete herritarrei. "Erosketak egiterakoan gogoan hartu, beharrean dagoen jendea, eta janari kilo bat eman ezazu

haientzat", eskatzen dute motozaleek.

Antzeko bilketak egiten ari dira Gipuzkoako beste udalerrietan, baita Euskal Herriko beste hainbat txokoetan. Bildutako laguntza guztia, Gipuzkoako janari bankuari emango zaio ekainaren 16an, Azpeitian ospatuko den ekitaldian.

Igande honetan, UEMA Eguna Aramaion

Aire berria euskarari!". Hori da aurtengo UEMA egunaren lema. Lurgune euskaldunek euskararen geroan duten papera aitortu beharra dagoela uste du UEMAK. Goi erakundeek euskaldunen erabateko euskalduntzea bermatu beharra dutela, orain arteko legeek ez baitute halakorik ziurtatu. Euskarara bere sorlekuan tokia bilatu ezinik dabilela salatuko dute ekainaren 8an. Jaia eta aldarrikapena uztartuz, arnasten jarraitzeko eta arnasgunea zabaltzen joateko, euskarari aire berria eskaini nahi diote antolatzaileek, Aramaioko hitzorduarekin. Hau-xe egitaraua:

UEMA Eguna 2013, Aramaio

- 10:00 Batzar Nagusia.
- 11:30 UEMA Eguneko hasierako



UEMA Eguna, Donostian aurkeztu zen egunean.

suziria eta kalejira trikitilari eta dantzariekin. Goizean zehar, haurrentzako puzgarriak, artisau azoka, talogileak eta sagardoa...

- 12:00 Goizueta-Aramaio herri kirol lehia. Haurrentzako puzgarriak, jokoak eta tailerrak.
- 13:00 Ekitaldia plazan.

■ 14:00 Kalejiran bazkaltzera. Txartelak: 18 euro helduek, 12 euro 14 urte arteko haurrek. Txartelak erosteko: 94 627 91 95.

- 16:30 Ane eta piratak parrandan! Irrien Lagunen ikuskizuna.
- 18:30 Erromeria: Zesuma taldea.
- 22:00 Kontzertuak.

Arau Subsidiarioen Testu Bategina, zuzendua eta onartua

Usurbilgo Hiri Antolaketa Arau Subsidiarioen Testu Bategina onartu zuen udalbatzak maiatzaren 28ko osoko ohiko bilkuran. Onarturiko testuak bere baitan jasotzen ditu, Diputatuen Kontseiluak 2011ko irailaren 6an ezarritako baldintzak. Testu Bategina, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Departamentura bidaliko da orain, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin. Erabakiaren alde bozkatu zuten Bilduk eta Aralarrek. Abstentziora jo zuten, Hamaikabat, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek.

Hainbat egokitzapen egin dira

Bozketa aurretik, Mertxe Aizpurua alkateak gai honek orain arte egin duen ibilbidearen berri eman zuen. 2010eko abenduaren 28an, aurreko legegintzaldian beraz, hasieraz onartu zela Testu Bategina. Gero-ra aurkeztu ziren sei alegazioei erantzunda, 2011ko martxoaren 15ean behin betiko onarpena eman zitzaiola. Eta hilabete batzuk beranduago, urte bereko irailaren 6an, Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartu zuen Testu Bategina. Baina berau argitaratua izateko hainbat zuzenketa edo egokitzapen burutu behar izan ditu Udalak. Lan hauek Ajuriaguerra Tres, S.L.P. enpresari esleitzea erabaki zuen Udalak. Tarte honetan, hainbat zuzenketa edo egokitzapen egin dira Testu Bateginean. Besteak beste, informazio osagarria gehitu dute, hainbat ezaugarri fitxa gehiago zehaztu dira, edota artikulu berri bat ere erantsi dute. 52 zenbakiduna. Orain arte, katalogatuak zeuden baserriak soilik zatitu zitezkeen bi etxebizitzetan. 52. artikulu berri honekin, ez da horren beharrik izango. Aurrerantzean beraz, bi etxebizitzatan banatzeko aukera izango dute baserri guztiek. Bestalde, Uraren Agenteziak uraren kartografia berria ere osatu du tarte honetan. Zuzenketa edo egokitzapenok eta beste batzuk egin eta Batzordetik pasa ostean, Testu Bateginari argitaratu aurreko azken onarpena eman zion udalbatzak joan den astean.

Usurbilgo Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak, martxan

Azken urteotan bezala, bi izango dira Atalluko ikastetxean landuko diren espezialitateak: sukaldarizterbitzari langilea batetik, eta ile - apainketa laguntzailea bestetik. Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lankidetzaren ondorio dira Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak.

HELBURUAK

- Lan-munduratzeara. Lanbide bat ikasteaz gain, eskualdeko enpresetan lan-praktikak egin daitezke, lan-munduan sartzeko aukera handiak zabalduz.
- DBH Graduatua lortzeko eta Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloetara sartu ahal izateko aukera.

HARTZAILEAK

- 16 - 18 urte bitarteko gazteak. Egoera berezietan 15 urteko gazteak aukera izango dute programan parte hartzeko.
- DBH graduatua lortu nahi duten gazteak. Ondoren, lanbide heziketako erdi-mailako ziklo bat egiteko aukera zabalitzen zaielarik.
- Lanbide bat ikasi eta lanean hasi nahi duten gazteak.

ESPEZIALITATEAK

Usurbilgo Udalak bi espezialitate eskaintzen ditu:

- Sukaldari-zerbitzari langilea (Kamarero-barmana-mahaiak



Ekainaren 23an amaituko da izena emateko epea.

zerbitzatu / Gozogintza / Okina / Sukaldaritzak).

- Ile-apainketa eta estetika laguntzailea.

PREZIOA

Doaneko ikasketak dira. Ikasle eta gurasoentzako ez du inolako karga ekonomikorik suposatzen.

LANTZEN DIREN ARLOAK

- Tailerra.
- DBH graduatuak.
- Lanbide-Heziketako erdi-mailako azterketa.
- Oinarrizko heziketa.
- Sozio-laboral arloa (lana biltzeko teknikak).
- Lan eta tutoretza orientatibide arloa.
- Kirola, aisialdia eta gizarte gaiak lan-praktikak eskualdeko enpresetan.

IRAUPENA

Bi ikasturte (2100 ordu)

- Lehenengo ikasturtea: Irau-

pena: 2013 iraila - 2014 ekaina. Guztira: 1.050 ordu.

■ Bigarren ikasturtea: Sakontze ikastaroa: Iraupena: 2014 urria - 2015 apirila . Guztira: 700.

Lan praktikak eskualdeko enpresetan.

Iraupena: 2015 apirila - ekaina. Guztira: 350 ordu.

Lortzen den titulua arautua da. Hain zuzen ere, Lanbide Heziketako gaitasun profesionaleko lehenengo maila.

AURRE-MATRIKULAZIO EPEA

Ekainaren 3tik 21 bitarte.

MATRIKULAZIOA, INFORMAZIO GEHIAGO

Usurbilgo Udala
Atallu . Zanziura, 3.
20170 Usurbil
Telefonoa: 943. 36.04.65
Faxa: 943.37.14.93
lhi.usurbil@gmail.com

Langabeak kontratatzeko laguntzak

Eskualdeko Enplegu Planaren baitan, langabeak kontratatzeko diru-laguntzak eska ditzakete Donostialdeko enpresek; hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo lantegiek. Horretarako, ekainaren 30era arteko epea dute.

■ Nortzuk eska ditzakete?: eskualdeko enpresa, profesional eta laneratzea sustatzen duten erakundeek.

■ Kontratuak: lanaldi osorako eta gutxienez 6 hilabeterako egingo zaizkie, Lanbiden lan-eskatzaille gisa izena emanda dauden pertsonen.

■ Dirulaguntzaren zenbatekoa: 641,40 euro hilabeterako (gehienez 6 hilabetez) eta kontratatzen den pertsona bakoitzeko.

■ Diru-laguntza eskaerak Andoaingo Urigain etxean (La Salle etorbidea, 6) aurkeztu behar dira. Bertan du egoitza, Andoaingo Udalaren Sustapen ekonomiko, enplegu eta Gazteria Sailaren erregistroak. Halere, argibide gehiago, Usurbilgo Udalean eskura litezke: enplegu@usurbil.net / 943 371 951

Baratze ekologikoari buruzko ikastaroa

Lursailaren prestaketa, laboreak eta garai egokiak, plangintza, hazitegiak, ereintza, laboreen zaintza... Larunbat honetan, goizez, 9:30- 13:30 artean. Izen ematea: 646 449 358 edo emaila: usurbiltzen@gmail.com

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL


ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

UDAN ERE

EMAN EUSKARA ELKARRI



aek

- **IKASTARO TRINKOAK**
- (uztaila-irailean 100 orduko ikastaroak)
- **MAILA GUZTIETAKO IKASTAROAK**
- 1, 2 eta 3. (E.G.A) mailako azterketa prestaketak

607 609 379 usurbil@aek.org
www.munteri.blogspot.com.es

ETUMETA AEK
usurbil

Kale Nagusia, 45 behea.
20170 USURBIL



“Bere musikarekin mundu zoragarri bat

25 urte bete ditu, 80. hamarkadaz geroztik Udarregi Ikastola Egunez, Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleek prestatu ohi duten ikuskizunak. Mende laurdena igandean ospatu zuten Oiardo Kiroldegian, HH-koek dantza eginez noski, jendetsua izan zen ekitaldian. Bertaratutakoen artean, haurren guraso eta senideekin batera, 3-6 urte artekoen dantza saioak emozio handiz bizi behar izan zituen ikus-entzule bat zegoen; emanaldiko koreografiaren erritmoa markatzen zuten abestien egilea, Imanol Urbietak. Ekainaren 2ko urteurrena, zarauztarra omentzeko baliatu zuen ikastolak.

Belaunaldi oso bat bere kantuekin hazi eta hezi baita Usurbilen, eta baita beste hainbat lekutako haurrak ere. Garai batean ikastolako zuzendari izan eta Urbietak bera aspalditik laguna duen Joxe Mari Arzallusek, zarauztarren ibilbide profesionalaren laburpen bat egin zuen ekitaldiaren baitan burutu zen omenaldian. Oparoa izan baita Imanolen ibilbidea eta egin duen ekarpena; Zarautzen abesbatza sortu, bertako ikastola abiatzen lagundu, udaleku euskalduna antolatzeko Goiatzen baserria erosi zutenetako bat izan zen... Baina zalantzarik gabe, haur, irakasle eta gurasoentzat, Imanol musikari, kantagile moduan egin da ezagun. Arzallusek zioen moduan, haurrentzat beti, “musika, musika eta musika” zuen, Gasteizen, Europako zenbait hiritan eta Afrikan ere ikasi eta ikasi ibili zen lagunak. “Betiko Pintto-Pinttoren ondoan, zerua bete doinu eta abesti berri egin zuen ikastolen alde: Jon Brown, Txalopin Txalo, Txo-



Ikastolaren Egunean, Udarregiren omenaldia jaso zuen Imanol Urbietak.

MARIAJE IMAZ

“Guretzat plazer eta ohore handia da Imanol Urbietak hemen izatea”

ria nintzela, eta besteko asko, Xirula Mirula eta Xixupika musikaren bidez zabaldu zituen guztiak”.

JAIONE ESKUDERO ERE, OMENDUA

Egindako ekarpena eskertzeko, zarauztarra omendu zuten igandeko haur ikuskizunean. Esker hitzak, ikastolaren izenean, Udarregiko egungo zuzendari Mariaje Imazen eskuetik jaso zituen Urbietak. “Guretzat plazer eta ohore handia Imanol hemen izateko dugun aukera. Urte hauetan guztietan bera gure geletan sartu da eta bere musikaren magiarekin mundu zoragarri bat eza gutu ahal izan dugu. Berak Usurbilaino ekarri ditu, Pantxika, Arroxali, Tomax agurea, era guztietako animaliak... Paristik zetorren artista handi hura ere ekarri zigun. Baina artistena bera dugu. Gizon aparta dugu. Esker hitzak besterik ez ditugu beretzat”, adierazi zion Imazek Imanol Urbietari, ikastolaren izenean.

Txalo zaparrada jaso eta lore sorta eskuetan zuela, esker hitzak izan zituen guztientzat Imanolek. Eta modu berezi batean, ikuskizunean omendu zuten bigarren lagun baten zuzendari. “Bizitza musikal honek bera izan da neure ahotsa eta neure bihotza”, adieraziz zuzendari Urbietak, hiru hamarkada hauetan Usurbilgo haurren artean musika zaletasuna gogotsu bultzatu duen Jaione Eskudero Udarregiko musika irakasleari. Urbietak bezala, bertaratutakoen aldetik txalo zaparrada jaso zuen Eskudero, baita lore sorta ederra ere HH-ko irakasleentzat.

Mariaje Imazek gogorazten duenez, Jaionek “musika maitatzen erakutsi digu behin eta berriro. Eta Usurbilgo ume guztiak bere kantetatik hezi eta hazi egin ditugu. Eta poz pozik gaude bera gure artean edukitzeaz. Harro”.

Testuinguru honetan ospatu zen 25. urteurren honetan ere, HH-ko ikasle eta irakasleak egun batez dantzari bihurtu zituen saioa, omenaldia izandako emanaldia. Haurren grazia eta naturaltasunak apartekoa egin zuen beste behin, ikasturte bukaera borobiltzen duen hitzordu hau.

Aurtengoan, Imanol Urbietak omentzeko modu egokiena zenez, bere kantekin sortu dituzte koreografiak.

IKASLEAK ARDATZ, ETA GURASOAK PARTAIDE

Ze ondo pasatzen duten. Urtez urte antzeko irudiak errepikatzen dira Ikastola Egunean. Aurpegiak aldatzen doaz, batzuk ikasketetan aurrera egin ahala ikastolatik badoaz, bertan daudenak hazten eta hezten, baina haietako askoren irribarrea ez da sekula ezabatzen. Aurten ere, iragan igandean ospatu zen Ikastola Egunean, goizean egin ziren jokoetan gogotsu parte hartu zuten LH eta DBH-ko ikasleek. Guraso, senide eta herri-tarrak erakarri zituen eguneko lehen hitzordua izan zen. Gehiagorako eman baitzuen Ikastola Egunak. Ikasleek eguneko eskulanean erakusketa zabaldu zuten. Eguerdiko Haur Hezkuntzako ikuskizunaren ostean bestalde, frontoia guraso, irakasle eta batez ere, ikasleez bete zen, aurtengoan, Udarregiko aita amek prestatu duten bazkari goxoa dastatzera. Sabela bapote ostean, bertaratu zirenak dantzarako tartea hartze-koak ziren.

ezagutu ahal izan dugu”



Ander Izeta: “Eskubide bat da gure hizkuntzan ikasi ahal izatea”

Gidabaimena atera behar duenak, euskaraz presta dezala. Aukera honen alde egiteko gonbita luzatzen du Ander Izetak. Ama hizkuntza duena, esparru guztietara zabaltzeko lagungarria ikusten du, auto eskoletan ere euskaraz ikasi ahal izatea. Solozabal auto eskolan 2011n gidabaimena euskaraz atera zuen usurbildarrak. Auto eskolake euskalduntzeko aurrerapausoak eman direla argi dagoen arren, oraindik bada zer egina izetaren esanetan. Zati praktikoa aztertzaile euskaldunak jarri eta gidabaimena lortzeko azken azterketa euskaraz egin ahal izatea adibidez.

Azterketa teorikoa euskaraz prestatzeko autoeskoletan zer baliabide dituzte?

Hasteko liburu bat banatzen dute. Liburu atalka irakurri ahala, ordenagailuko test batzuk daude egiteko. Atal guztietako testak egin ostean, nahasian testak egiten hasten zara. Zerorren burua azterketa teorikora prest ikustean, egin nahi duzula adierazi eta kito. Erdaraz egiten dutenentzako prestatuagoa dago. Ordenagailuak esaten dizu jada prest zaudela. Euskaraz prestatuz gero, nok bere buruari esan behar dio prestatu dagoen edo ez.

Erdaraz baino zailagoa izan daitekeela pentsa dezake norbaitek?

Neure kasuan, autoei buruz ez nekien ezer. Niretzat dena berria zen. Beraz, euskaraz edo erdaraz ikasi, niretzat berdin zitzaidan. Euskaraz ikasteko, ez dago zailtasunik.

Azterketa teorikoa prestatu eta



Ander Izeta, gida-baimena eskuetan duela, Solozabal autoeskolaren atarian.

ANDER IZETA

Gida baimena euskaraz ateratzeko “ez dago zailtasunik”, aitortu digu

gainditu ostean, zati praktikora. Zer hutsune sumatu zenituen?

Euskaraz ateratzeak duen alderdi txarra praktikoa da. Ez dago aztertzaile euskaldunik, edo euskaraz behintzat ez dute aztertzen. Irakasleak erdaraz irakasten dizu, azterketako garaian erdaraz egin beharko duzulako. Baina niri ere egokitu zait irakaslea bera ere erdalduna izatea. Hor dago neuretzat, moldatu beharko den hutsune bat. Gidabaimena euskaraz atera nahi duenak, praktikoa ere euskaraz egin beharko luke. Eta hala ez bada, gutxienez irakasle euskaldun bat izatea eskertzekoa da. Azkenean, aurretik euskaraz ikasitako hiztegi hori guztia, zati praktikoa erdaraz ikasi behar duzu gero. Niri zaila egin zitzaidan gainera, erdara ez baita neure ama hizkuntza.

Zati praktikoa euskaraz egin ahal izatea eskatzen baduzue, auto eskolek badute eskaera hori bideratzeko modurik?

Neure kasuan ez nintzen saiatu. Hala tokatu zen eta horretan utzi nuen. Baina nire ustez bada kontu bat, autoeskoletan begiratzeko joan beharko luketena; ikastaro intentsiboen gaia. Neure garaian behintzat, euskaraz ikastaro intentsiboa egiteko modurik ez zegoen. Jendea interesatzen zaio astebetean teorikoa gainera kendu eta gero praktikoa zentratzea. Horregatik, jendeak nahiago du erdaraz prestatu, teorikoa astebetean atera eta gero praktikoa egitea. Gainerakoan, jendeak gidabaimena euskaraz atera nahi duelakoan nago. Azkenean zure hizkuntza da, zure hizkuntzan ikastea nahi duzu. Eta errazagoa egingo zaizu.

Gidabaimena euskaraz ateratzeko dakarren abantailak bat, zozketa batean parte hartzeko aukera da?

Auto eskola berak egiten du zozketa, gidabaimena euskaraz atera dutenen artean. Zati teorikoa ordaintzeko diru saria jasotzeko aukera dago. Laguntza oso polita. Jendea erakartzeko oso egokia. Eta neure kasuan bezala, saria egokitu zaionarentzat, poz handia.

18 urte bete eta gidabaimena ateratzeko aukera dutenek, zergatik hautatu behar lukete gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko?

Azkenean gure hizkuntza delako. Gure hizkuntza esparru guztietara zabaltzea nahi badugu, gure esfortzua egin behar dugulako. Badakit oso tentagarria dela zati teorikoa astebetean egitea. Beste batek hiru edo bi asteetan menderatuko luke eta nik uste esfortzu bat egin litekeela, gure hizkuntza indartzeko. Gero kexatzen gara, toki guztietan erdaraz egiten digutela, eta azkenean gu gara erdarara, edo gaztelerako klaseetara goazenak. Gure aldetik ere pauso hori eman dezagula. Eskubide bat da baita, gure hizkuntzan ikasi ahal izatea. Eskubideak betetzeko eta baliatzeko daude.

Udajolaseko guraso bileran, ekainaren 13an

Gogoan izan, uztailaren 3tik 30era burutuko diren aisialdiko ekimen honen inguruko argibideak, ekainaren 13an burutuko den guraso bileran emango dira. 17:00etatik aurrera, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Zuberoatik gure artera, alternatibak ezagutzera

Sarrikotapeako bizilagun taldea duzue irudian. Sarrikotapea, Zuberoako udalerritxiki bat da, 240 biztanlekoa. Larunbat goizean Usurbilen izan ziren, hemen burutzen den atez ateko bilketa sistema ezagutzen. Orain arte bezala, hondakinak nahasian bildu eta zabortegetietara garraiatzeko ereduaren aurrean, bestelako alternatibak badirela ezagutzeko aukera izan zuten. Hain zuzen, Ipar Euskal Herriko hondakinen biltoki lanak egingo lituzkeen zabortege bat eraikiko dieten mehatxupean bizi dira Sarrikotapeako eta inguruetako bizilagunak. Egitasmo honen aurka lanean ari da, ekainaren 1ean Usurbilen bisitan izan genuen lagun tal-



Zuberoako herri txiki batetik etorri ziren larunbatean, atez atekoa ezagutzera.

dea. Atez ateko bilketa esperientziaren berri jasotzeko aukera izan zuten Sarrikotapeako bizilagunek. Baita auzo-

konpostatze esperientziak bertatik bertara ezagutzeko ere. Udalerritik ibilaldia egin zuten.

Zumarteko ikasturte amaierako kontzertuak

2013-2014 ikasturterako matrikulazio epea itxi berri dute, eta orain, udako oporraldian murgildu aurretik ospatzeke gelditzen zaien azken hitzorduaren atarian dira, Zumarte Musika Eskolakoak. Ikasturte amaierako ikasleek eskaini ohi dituzten emanaldiei buruz ari gara.

Ekainaren 13an burutuko da lehen saioa, Musika Txokoko ikasleen eskutik. 18:30etatik aurrera, Udarregi Ikastolan. Gainerako emanaldiak, hilaren 17, 18, 19 eta 21ean izango dira. The Astelehen's, Ganbarakada, musika instrumentu



talde desberdinak edota abesbatzak igoko dira Sutegiko auditorioko oholtza gainera. Zumarte Gazte Abesbatzak borbilduko du emanaldi sorta hilaren 21ean, Kalezarko San Juan jaietan. Zehaztasun gehiagoren berri, datorren astelehenaren.

ANTZERKI TXIKI-REN AZKEN EMANALDIA

Antzerkigintzan diharduen herriko gaztetxo taldeak emanaldia eskainiko du ostegun honetan, ekainak 6, 17:00etan Sutegin. Saiora gerturatzeko gonbita luzatzen dute antolatzaileek.

Urdairako sagardoa saritu dute

Gipuzkoako XII. Sagardo Lehiaketan, sei ziren finalera sailkatutako sagardotegiak: Setien, Altzueta, Aburuza, Iparragirre, Oialume eta Usurbilgo Urdaira. Setiener sagardoa izan zen gailendu zena, Altzuetakoa bigarren geratu zen eta Urdairakoarentzat izan zen hirugarren saria.

Bi helburu nagusi ditu lehiaketak: sagardogilearen elaborazio lana baloratzera eta botilaratutako sagardoa- ren kalitatea saritzea.



Urdairakoak oroigarria eta 1.000 euro jaso zituen.

2012ko Eusko Label sagardoaren aurkezpena

Larunbat honetan, II. Eusko Label Sagardo Eguna ospatuko da Bilboko Plaza Berrian. Eusko Label 2012 uztatu aurkezteko helburuarekin antolatuko dute larunbateko ekitaldia. 11:30ean hasiko da Bilboko Sagardo Eguna eta Alde Zaharreko Plaza Berrira hurbiltzen diren guztiek 18 sagardotegietako uztatu dastatzeko aukera izango dute. Bilbon dastatzera emango den sagardo guztia %100 Euskadiko sagarrarekin eginikoa izango da, hau da, dastatzeko botila guztiak Eusko Label zigilua dutenak izango dira.

Ahotsaren erabilerari buruzko ikastaroa

Ekainaren 11n asteartea, 18:30ean Udarregi Ikastolan, "ahotsaren erabilerari buruzko ikastaroa" izeneko egun bateko ikastaroa antolatu dute Kantu Taldekoek. "Era atsegina eta dibertigarria" gidatuko du saioa, Ainara Ortega Barrenetxea bibolinjole, aktore eta abeslariak.

Ikasturteari astebete beranduago, ekainaren 18an emango diote amaiera Kantu Taldekoek. 19:30etan Artzabal, antolatu duten kantu afari meriendaren bidez.

San Juanei begira

Festa giroaz kutsatzeko gogoz dena presta dadila, gutxi geratzen baita inguruotako jaien denboraldiari ekiteko. Astebete baino ez, eguneroko kezka eta arazoak alboratu eta Kalezarko San Juanetan murgiltzeko. Aurten ere, bi astebururen bueltan antolatu dute Jai Batzordekoek, festetako egitaraua. Guztira sei jai egun izango dituzte, eguraldiak bestelako itxura badu ere, San Juan suaren bueltan urtaro berriari ongi etorria emango dioten San Juan festek. Apuntatu, hauek dira festa egunak; ekainaren 15,16,21,22,23 eta 24a.

Igandez egokituko da aurten hain zuzen, San Juan sua pizteko hitzordua. Ekainaren 23an ospatuko da, arratsaldetik abiatu eta goizaldera arte luzatuko den eskearen baitan. Biharamunean, San Juan Egunean, Kalezarko jaiak agurtzeko programatu izan dituzten aurreko urteetako ekitaldiek ez dute aurten ere hutsik egingo; Gorririaren showa, soka dantza, toka txapelketa... Eta eguna eta festak borobiltzeko, sardina eta sagardo dastatzea.

San Juan bezpera eta egunaren aurretik ordea, oilasko biltzaile txikiak kalejiran irtengo dira ekainaren 22an. Bazkaritarako bilduko dira gero auzoko plazan. Etxeko txikienek parte hartzeko aukera izango dute oilasko biltzaileen kalejiran, baita aurreko asteburuan, ekainaren 16an ospatuko den Umeen Egunean ere. Krosa, jolasak, tailerrak, txokolate jana... Egun pasa zoragarria egiteko aukera beste behin Kalezarren.

Larunbatean, bertso-saioa

Jokoen bueltan gaztetxoek soilik ez, helduek ere badute zeresana. Aurtengoan baita, desafiatzeko aukera izango dute auzotarrek, Jai Batzordetik ekainaren 15ean proposatuko dizkieten jokoetan. Ekitaldi honekin eta buruhandien irteerarekin abiatuko dira hain zuzen, datozen San Juanak. Festetako lehen gau horretan, bertso saioa ospatuko da Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano eta Amaia Agirre-



Lizaso (argazkian), Anjel Mari Peñagarikano eta Amaia Agirre arituko dira larunbatean kantuan.

ren eskutik. Jaietako beste bi gauetan parranda giroa ziurtatuko dutenak aurten; Arto2xar, Berri Tzarrak, Luz de Putas eta Gugaz Erromeria ekainaren 21ean eta DJ Gude biharamunean. Hauek labur, datozen San Juanek Kalezarrrera dakartena. Zehaztasun gehiago, gaur zortzi kaleratuko dugun gehigarri berezian. Aurre-rapen moduan, honatx lehen astebururako antolatu dituzten ekitaldiak:

EKAINAK 15, LARUNBATA

18:00 Buruhandiak.
19:00 Auzotarren arteko jokoak.
22:30 Bertso saioa: Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano eta Amaia Agirrereren eskutik.

EKAINAK 16, IGANDEA UMEEN EGUNA

10:00 XI. Ume Krosa.
11:30 Jolasak.
16:30 Tailerrak.
18:00 Txokolatada, Ondoren buruhandiak.
19:00 Dj Burundarekin dantzaldia.

Oilasko Biltzaile Txikien bazkaria

Ekainaren 22an ospatuko den Oilasko Biltzaile Txikien bazkaritarako txartelak, ekainaren 16an, Umeen Egunean jarriko dituzte salgai antolatzaileek. Kalezarren bertan, txosna gunean eskuratuko ahal izango dira.

Lurrak, nekazari gazteei eskainiak

Lezon agroalde ekologiko bat jarri dute martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak, Behemendik eta Kutxa Ekogunekoak. Hektarea bateko bost partzela daude eskuragarri, bost urterako alokairu merke bat ordainduta. Interesa duenak Biolurren (943 76 14 47 / 688 626 468) edo Fraisoron (943 000 244 / 943 692 162) jasoko du informazio gehiago.

Udako kimaketari buruzko ikastaroa

Aurreko larunbatean, udako kimaketari buruzko ikastaroa egin zen, Alkartasuna Kooperatibak antolatuta.

Aitor Etxeandia Nekazaritza injenierari eman zuen ikastaroa. Lehenbizi, atal teorikoa eskaini zuen Potxoenea Kultur Etxean, eta ondoren atal praktikoa Aginagako sagasti batean.



Aitor Etxeandiak eman zuen ikastaroa.

Hegaztiei buruzko blog-a

Hegaztien eta naturaren inguruko zaletasuna partekatzen duten lagun batzuk sortu dute. Eta Lasarte-Oriatik Oriara bitartean gertatzen diren notizia ornitologiko txikiak argitaratu ematea eta komentatzea da blog honen helburua. Hau da blogaren helbidea:

<http://usurbilgotxoriak.wordpress.com/>

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
20170
USURBIL

Patxi Azpirotzen hiru milakoen argazki bilduma



Beste batzuen artean, Maldito mendia ikusten da argazki honetan. Argazkia: Patxi Azpirotz.

Bere lehen hiru milakoa, "Balaïtous izan zen 1979an. 25 urte beranduago, 2004an, nire 212. hiru milakoa igo nuen, Perdido Mendiaren Hatza". Patxi Azpirotz herritarrak mende laurdenez, igo dituen Pirinioetako hiru milako mendietako bi dira horiek. 25 urtetan eginiko irteera guztien irudiak bildu ditu, ostiral honetan, ekainaren 7an Sutegin proiektatzeko.

Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak antolatutako ekitaldia, arratsaldeko 19:30etan hasiko da.

Azpirotzek mendien inguruko datuak ere jaso ditu proiektiorako. Argazkietan Patxi bera ageri da, eta urteotan bidaia lagun izan dituenak. "Hiru milakoak egiteko orduan, 25 urte hauetan, lagun askok lagundu didate. Hainbat kasutan usurbildarrek. Baina badaude lasartarrak, zaraustarrak, azpeitiarrak, hernaniarrak, donostiarrak, pasaia-tarrak, andoaindarrak, tolosarrak, eibartarrak, elgetarrak, bergararrak, debatarak, mundakarrak, bermeotarrak", dio Azpirotzek. Musikak giro-tuko du diaporama saioa.

Ohorezko Mailara igo dira



"Larunbatean Haranen bizi izan genuena izugarria izan zen", adierazi digute Usurbil FT taldekoek. "Gure mutilek Dunboa Eguzki talde irundarren aurka, bigarren itzuliko partida jolastu eta bina berdindu zuten. Irunen jokatuako partida

jokatu ondoren hartutako abantaila erabakigarria izan zen". Horri esker, Usurbil FT ohorezko mailara igo da. Zuzendaritzatik eskerrak eman nahi dizkiete partida ikustera hurbildu zirenei, guraso-taldeari, jokalariei eta entrenatzaileei. Zorionak!

Hiru eskubaloit talde, Leioara larunbatean

Askartza eskubaloit elkarteko Eskubaloit Eguna antolatu du larunbat honetarako, ekainaren 8rako Leioan (Bizkaia). Hainbat talde joango dira bertara. 27 klubetako 126 talde eta 1400 kirolari espero dira txapelketa honetan. Tartean, Usurbil Kirol Elkarteko ordezkariak izango da. Alebin mutilen, alebin nesken eta infantil nesken taldeak bertan izango dira. Txapelketa goizeko 9:00etan hasiko da eta 14:30etarako amaitzea aurreikusten dute. Partiden egutegiaren berri eta informazio gehiago: balonmanoaskartza.com

3330, Tipi-Tapako zozketako zenbaki saritua

Jendetsua izan zen beste behin, iragan igandean ospatu zen ikasturteko azken Tipi-Tapa. Zazpigarren edizio honetan, gulekin eginiko pintxo eder askoak prestatu zituzten, Txiriboga, Aitzaga, Bordatxo, Artzabal eta Txapeldun tabernek. Bi hilean behin egokitzen den moduan, Hurbilago elkarteko establezimenduetan xahutzeko 300 euroko erosketa balea ere zozketatu zuten Aitzagan. Zenbaki saritua, 3330 izan da. Tipi-Tapa txartela esku artean geratu zaiuzuenoi, antolatzaileek ondo gordetzeko gonbita luzatzen dute. Ekimenak izan duen harreara ikusita, tabernariak Tipi-Tapari jarraipena ematekotan baitira, udazkenetik aurrera.

Usurbil FT-koen errifa zozketa

Berriki, errifa zozketa egin du Usurbil FT-k. 1305 izan da zenbaki saritua. Tono Rodriguez eta Joseba Lejardi izan dira sarituak. Urdaiazpiko ederra eta botila ardoa irabazi dituzte.



Tono Rodriguez eta Joseba Lejardi izan dira sarituak.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000e. 617 972 350.

Atiko batsalgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxebizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpian. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzea. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Pisua alokairuan edo salgai Munalurran. 637 309 209.

Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, Txaramunton. 4 gela, sala, bi komun eta sukaldea. Abala eskatzen da. Tlf. 688 675 856

Usurbilgo kaxkoan pisu eguzkitsua, 2 logela. Igogailuarekin eta berogailuarekin. 635 20 56 94.

Kaxkoan pisu eguzkitsua alokatzen da, 2 logela. Igogailuarekin, berogailuarekin. 635205694

Pisu bat alokatzen da kaxkoan, 3 logela, sala, sukalde, komuna. Dena kanpoaldera, eguzkitsua. 648868599

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495 - 695767821 - 657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzerriarrik ez. Tel. 687 348 223.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil 622 856 181.

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

Kia Carnival 2.9 CRDI EX 5P 144 C. monobolumena (7 plaza) salgai. 6.500 euro, 80.500 Kms. 645737925 / 691785568

Garaje itxita salgai. 20 m karra-tuak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro

Opel Zafira salgai, 1.781cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4Tdi 80zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzaila eta beti garajea.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000 km, gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenean 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagari Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzean eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaindiko nituzke goizez zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomata. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatera eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia

eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketean. Arduratsua. 622 487 879.

Urreak zaintzen, garbiketean eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordu-tan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria pres-tatu... Garbiketari lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldean 6-12 urte-tako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

**Zorionak Zuhaitz!!**

Ekainaren 11n 9 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu pottolo bat Nahia eta etxeko guztien partez!



Zorionak June! Ekainaren 6an, zure 7 urteak ospatuko ditugu. Muxu handi bat eta ondo pasa! Unax, Oihan, Anje eta Aratz.

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666041971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketara lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adinako pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan. 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

BESTELAKOAK

Zaldi Hispano Arabe bat saltzen da. Montatua dago eta oso lasaia da. Ume zein helduentzat egokia. Silla eta guzti saltzeko aukera.

Nerea. 620011889

Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpetata eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea, grisa, horia eta naranja kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negoziagariak). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gazte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekuak salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haurjokoak, liburuak, kirol materiala, ispiuak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene-tostialera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretra.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
NOAUA! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak ekainak 6-ekainak 16

Osteguna	6	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Ostirala	7	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata	8	GIL	Kale Nagusia 24 Lasarte
Igandea	9	GIL	Kale Nagusia 24 Lasarte
Astelehena	10	GIL	Kale Nagusia 24 Lasarte
Astearte	11	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Asteazkena	12	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte

Osteguna	13	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
Ostirala	14	ORUE	Jaizkibel Plaza 2, Lasarte
Larunbata	15	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Igandea	16	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak
Behoko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Agenda ekaina

7 ostirala

- "Pirinioetako hirumilakoak" diaporama Sutegin 19:30ean.
- **MunduMob entsegua Zubietan** 19:00etan Eskola Txikian.

8 larunbata

- **Baratze ekologikoaren laborantzarako has-tapen ikastaroa.** 9:30-13:30. Izen ematea: 646 449 358 edo usurbiltzen@gmail.com

9 igandea

- **Lokiz mendizerrara irteera.** 6:30ean, Oiar-do kiroldegitik.
- **Iban Nikolairen kontzertua** Usurbilgo gaztetxean, 19:00etan. Sarrera, doan.

Igande honetan, Lokiz mendilerroa ezagutzeko aukera aparta

Nafarroa mendebaldean dago Lokizeko mendizerra. Hango parajeetan zehar ibiltzeko, 18 kilometroko ibilbidea pres-tatu dute Andatzakoek, igande honetako irte-erarako. Narkuetik Urbisurako bidea osatuko dute, tartean, Arlaba mendia eta Lokiz zehar-katuz. Amaieran, otordua egiteko Urbisuko elkarteak bilduko dira guztiak.



Joan etorria autobusez egingo dute.

Irteera ordua, goizeko 6:30etarako jarri dute Oiar-do kiroldegian. Joan etorria autobusez egingo da.

Izen emateko, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak Kutxabanken duen kontu korrante zenbakian, ordainketa egin behar da, ekainaren 5a baino lehen: 2095 5069 07 1068489805.

27 euro Andatzako bazkide eta langabetuek, 30 euro gainerakoek.

Plazak mugatuak izango dira. Lehentasuna, Andatzako bazkideek izango dute.

Informazio gehiago, www.andatza.com web orrialdean.

MunduMob amaiera ekitaldia Donostian

Zero Zabor taldeak Mundumob ekimena jarri du abian Gipuzkoan, ondorengo belaunaldi mundu hobeago bat uzteko helburuarekin. Mezu hau zabaltzeko, munduko bola bat Gipuzkoa zehar-katzen ari da, herriz-herriz. Larunbat honetan, MunduMob Donostiara helduko da, eta Bulebarrean egingo dute amaierako ekitaldia, 18:00etan.

Igande honetan didgeridoo kontzertua gaztetxean

Instrumentu aborigen honetan espezialdu da Iban Nikolai eta dagoeneko hainbat lan eman ditu argitarara. Igande honetan, gaztetxean eskainiko duen saioan, dantzari batek ere hartuko du parte. Eta proiektio bat ere izango da ikuskizunaren parte. Iban Nikolairen saioa arratsaldeko 19:00etan hasi-ko da. Sarrera doan izango da.

Datozenak

Gaztelekuko guraso bilera

Urteko balantzea egiteko, guraso bilera deitu dute Gaztelekuan, ekainaren 10ean, 18:00etan. Bertako erabiltzaileen guraso-ek ikasturtean zehar egin diren ekimenen berri jaso ahaliko dute, argazkiak ikusi...

Ziortzako kanpaldia muntatzera

Ekainaren 22rako jarri dute hitzordua Peñaloscintosen (Errioxa), uztaierako Ziortzak antolatutako kanpaldia muntatzeko. Laguntza eskaini nahi duten herritarrek, email bat idatzi behar dute, helbide honetara: ziortzage@gmail.com.

KzGunea, ekainean arratsalde irekita

Ekainean arratsalde irekiko dute KzGunea, 16:00-20:00 artean. Hauexek, hurrengo aste-otaroko programatu dituzten ikastaroak (informazio gehiago: kzgunea.net, 943 023 684 edo tutor.usurbil@kzgunea.net):

- Ekainak 3-14: KzGunea Internet ikastaroa (16:00-18:00).
- Ekainak 25: OpenOffice Calc: Oinarritzakoa (16:00-18:00).
- Ekainak 26: OpenOffice Calc: Aurreratua (16:00-18:00).

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.



EKAINEAN



REKIN



BI LAGUNENTZAKO 20 AFARI!

...ZOKKETATUKO DIRA HURBILAGO TXARTELAREN ERABILTZAILEEN ARTEAN



hurbilago

Usurbil
osasuna atez ate



www.hurbilago.com

Usurbilgo Udalak

Euzko Legebiltzarra